

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
 PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
 ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
 ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Osasun Departamentuak kolesterolaren kontrako sendagaiak hartzen dituen 75 urtetik gorako 9.000 pertsonari azterketa egiteko programa hasi du

*Farmaziako zuzendariordeak, Nafarroako Ospitale Guneko zerbitzuak eta Lehen Arretako gerenteak estrategia bat bultzatu dute, 75 urtetik gorako pertsonen % 40ak hartzen dituen sendagai horien erabilera optimizatzeko*

Astelehena, 2018.eko abenduak 17

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak (SNS-O) kanpaina bat hasi du, estatina eta ezetimiba izenez ezagunak diren kolesterola murrizteko sendagaien erabilera optimizatzeko xedez. Horretarako, Nafarroan sendagai horiek hartzen dituen 75 urtetik gorako 9.000 pertsonari, hots, biztanleriaren % 40ari, jarritako tratamendua aztertuko da.

SNS-Oren Farmaziako zuzendariordeak bultzatu du ekimena, eta, horretarako, lehen mailako arretako farmazialariak, geriatrak eta familiako medikuak bildu ditu, sendagai horien agindua egokitzeko estrategia bat sortzen elkarlanean aritu direnak.

SNS-Ok informaziozko diptikoak argitaratu ditu “Medicamentos para el colesterol... ¿para toda la vida? / Kolesterolarendako sendagaiak... bizitza osorako?” izenburuaren pean, [euskaraz](#) zein [gaztelaniaz](#). Nahi duenarentzat, foru-erkidegoko osasun-zentro eta kontsultategietan egongo dira.

Liburuxkek azaltzen dute zein kasutan gomendatzen den sendagai horiek hartzea, eta noiz utz diezaioketen beharrezko izateari. Haien erabilerari lotutako kontrako efektuei buruzko informazioa eta arrisku kardiobaskularra murrizteko aholkuak ere jasotzen dituzte, horien artean erretzeari uztea, dieta osasungarria egitea, ariketa fisikoa egitea, pisu



Kanpainaren kartela.

orekatua mantentzea eta gatz- eta azukre-kontsumoa murriztea.

### **“Estatinak” eta ezetimiba, erabilienak**

Gehien erabiltzen diren sendagaien artean "estatinak" (atorvastatina, simvastatina, fluvastatina, lovastatina, pravastatina, rosuvastatina, pitavastatina) eta ezetimiba daude. Egiaztatuta geratu da sendagai horiek onuragarriak direla arazo kardiobaskularrak murrizteko, aurretiaz arazo kardiobaskular bat izan duten gaixoen kasuan bereziki (miokardio-infartua, etab.) Baina azterketa batzuk iradokitzen dute guztizko kolesterol-maila baxuek 80 urtetik gorako gaixoen hilkortasun-tasa areagotzen dutela. Gainera, sendagai horiek kontrako efektuak eragin ditzakete, esaterako muskuluetako mina –kasu batzuetan gaixoa ezgaitu dezakete edo haren egunerokoari eragin diezaioke–, diabetesaren intzidentzia areagotzea, giltzurrun-gutxiegitasuna, begi-lausoak, narriadura kognitiboa eta funtzio hepatikoaren asaldura.

Bestalde, aipatu behar da adinarekin kolesterolak garrantzia gutxiago duela arrisku kardiobaskularreko faktore gisa. Ildo horretatik, Familia eta Erkidegoko Medikuntzaren Espainiako Sozietateak 2014an gomendatu zuen “ 75 urtetik gorako pertsonen kasuan, hiperkolesterolemiaren farmakologia-tratamendua modu sistematikoan ez agintzea arazo kardiobaskularren lehen mailako prebentziorako”.

### **Erabakiak hartzen laguntzea**

El SNS-Ok medikuei erabaki farmakoterapeutikoak hartzen laguntzeko sistema bat du, eta, horren bidez, jakin dezakete kolesterolaren kontrako sendagaiekin tratamendu jarraitua duten pertsonetako batzuk noiz utz diezaioketen sendagai horiek hartzeari. Informazio hori oinarri hartuta, tratamendua berrikus dezakete, eta, egoki baderitzote, etetea edo jarraitzea gomendatu.

2017ko abenduan, SNS-Ok antzeko kanpaina bat hasi zuen "urdail-babesle" izenez ezagunak diren sendagaien erabilera optimizatzeko, horien erabilera aproposa ez zen pertsonengan. Gaurko egunez 5.000 pertsonak sendagai horiek hartzeari utzi dio, eta, horrenbestez, argi geratu da osasun-arloko profesionalek zein gaixoek sendagai horiei erabilera egokia emateko interes berdina daukatela.